

GIPUZKOATARRAK PLAZA AGIRIKOETAN JOKATU

OI DITUZTEN PILLOTA-PARTIDUAK.



Gizon jakinti askok aitortzen dute garbiró, Euskaldunak sortua dala pillota, eta pillotako jokua; Euskaldunak dirala pillotako lanbidean beste guztien buru ta nagusi; eta Gipuzkoatarrak jatorriz direala pillotari gaiñ gañekoak, eta jostallu gozarotsu onetara guztiz eresi andia dutenak.

Egiazki ikusgarria da chit pillotariak plazan oi darabiltzen pizkortasun, azkardade, eta arintasuna. Probinzia onetako jaiotarrak jai guztietan jostaldiatzen dira pillotan, andizki eta apaiz-etarañoakoak langilleakin batean. Erriak erriai, probinziak probinziari, eta azkenik Franzesai ere, Gipuzkoatarrak jokatu izan diezate pillotan dirutza andiak asko aldiz. Ez ordea ustekabezean alkargana biribillaturik, baizik gizon prestu gisa, aldeaurrez batak besteari gaztigatu, eta bide erdira irtenik adiskidetasun andian erabakitzeñ dituztela garbiró, zenbat diru jokatu, zein egunetan, nongo plazan, nolako pillotakiñ, zenbat jokutara, eta lanbide oni dagozkion argibide osterontzeko guztiak.

Modu onetan egindako pillota-partidu ondra andikoetan, ikusi izan dira onza urreak millaka jokatzen.

Ernaniko plazan lau Nafartarri, beste lau Gipuzkoatarrak jokatu-tako pillota-partidu batean, ikusi izan ziran oe osoak beren janziakin, eta kosna ta kolchoi bakarretarañoakoak ere, bertako jendeak erritarren alde balio jakiñaren truke ifinirik pillota jokuaren aldameneko zumar gañetan ichekita zinzilika zeudela, partidua bukatu arte guztian. Pillotako partidu andi au jokatu izan zatekean milla zazpi eun eta ogei-garren urte inguruan. Gertatu omen zan Gipuzkoatarrak irabaz-

tea; bañan chit estutik eta etsi ezkerokoa. Gipuzkoatarrak sei joku eta Nafartarrak amar jarri omen ziran amaikarako: Oek partidua irabazitzat biraldu omen zuten mandataria beren errietarontz. Bañan Erribera deitzen zitzaion Oyarzungo galai gazteren bat arras mindurik, asi omen zan sakatzen pillota andia, eta Jesus-garrengo ziplatu omen zien Nafarrai partidua. Denbora aetan eta geroztik ere oitura izandu da Gipuzkoan, partidu andi bat irabazitakoan itzneurtuak ifintea, beretan adierazten dirala oso ta garbi, pillotariakiñ plazan igarotako gertakari guztiak, ondorengoak ere gogoan izan zitzen, aurreragokoak egindako azaña andiak, oraiñ zer-nai gauzaren barriak paper moldizkidatuetan zabaltzen diraden bezala.

.
 Izendatu dedan pillota-partido Ernanikoa irabazitakoan, Gipuzkoatarrak ifini izan zituzten bersoetako iru ezarriko ditut emen, Probinzia onetako edozein atsok gaurko egonean ere kantatzen dituenak, eun ta ainbeste urteren buruan, atzo ateratako berri berriak balirake bezalaiñen. Berso oek dira iruna puntukoak, eta beren okasta edo tonu berezitu ederrean, chit egoki datozenak.

Amar joku ta sei zeudenean
 Erriberaren kopeta,
 Bazirudien bazekarrela
 Elurrarekin tormenta;
 Elizaraño sakatzen zeban
 Zortzi onzako pillota.

Baztandarrak itzak eder
 Malmotea kolkoan,
 Erraz irabazi uste zuten

Partida galdutakoan,
 Negarra mardul egiten zuten
 Ernanin eliz-ondoan.

Astigarragan mutil chiki bar
 Probestuaren semea,
 ¿Non billatzen da errestorako
 Bera dan baino obea?
 ¡Ikaraturik biraldu bait-du
 Nafarroako jendea!

JUAN IGNAZIO IZTUETA-KOAK.

